

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### SAMANIEGOKO UDALA

#### **Herritarrek parte hartzeko programa, Samaniegoko udal plangintzako arau subsidiarioen aldaketa puntualaren barruan, Remirez de Ganuza SLU upategia handitzeko**

Alkatearen 2021eko abenduaren 21eko dekretu bidez, izapidetzen hasi zen Samaniegoko udal plangintzako arau subsidiarioen aldaketa, Remirez de Ganuza SLU upategia handitzeari dagokiona, eta akordioaren hirugarren puntuak agindu zuen herritarrek parte hartzeko programa laburki argitaratzeko ALHAOn eta udalaren webgunean.

#### **HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA**

1. Agiri honen xedea.

Hau da herritarrek parte hartzeko programa, Samaniegoko udal plangintzako arau subsidiarioen aldaketa puntualaren barruan, Remirez de Ganuza SLU upategia handitzeko.

2. Proposatutako aldaketaren edukien laburpena.

Proposatutako aldaketaren bidez honako hauek egin nahi dira:

a) Remirez de Ganuza SLU upategiari lotutako industria sektore berria sortzea.

3. Herritarrek parte hartzeko gida.

Herritarrek parte hartzeko programak fase hauek izango ditu:

1. ALHAOn eta udalaren web atarian argitaratuko da.

2. Jendaurreko ekitaldian aurkeztuko da, eta hauek azalduko dira: aldaketaren irismena eta edukia, nola kontsulta daitekeen, bilera partikularretarako aurretiko hitzordua eskatzeko aukera eta alegazioak nola egin, bai eta haiek aurkezteko tokiak eta epeak ere. Galderak egiteko aukera ere izango da.

Ekitaldirako deialdia udalaren iragarki taula ofizialean eta webgunean egingo da.

Espedientea bertatik bertara ikusteko aukera izango dute hala nahi dutenek, jendaurrean egongo den bitartean.

Agiriari egingo zaizkion alegazioak udalera bidali behar dira, idatziz edo telematikoki, hura jendaurrean dagoen bitartean. Udalak haiei buruzko erabakia hartuko du, espedientea izapidetzeari berriz ekin aurretik.

Proposatutako aldaketak ez dakarrenez gorabehera handirik eta kontzeptuak sinpleak direnez, ez da beharrezkotzat jo dibulgazio materialik prestatzerik hura errazago zabaldu eta ulertzeko.

Samaniego, 2021eko abenduaren 21a

*Alkatea*

*M. PILAR GARMENDIA IPARRAGUIRRE*